Irakurle txartela,
Erabilera-gida

Txartela aurkeztu behar da bai mailegu zein Internet zerbitzuak erabiltzeko, bai materialak ikusi edo entzuteko, bai liburutegiko langileek bidezkotzat jotzen duten edozertarako. Txartelak Nafarroako Liburutegi Publiko guztietarako balio du eta edozein herritarrek eska dezake, baita erabili ere.

Txartela doakoa, pertsonala eta besterenezina da: ezin zaio beste inori utzi liburutegiko zerbitzuak erabiltzeko. Dena dela, bada salbuespenik: gurasoek haurrentzako materiala, ez helduentzakoa, har dezakete beren seme-alabentzat.

Txartelaren balioa mugagabea izanen da. Pertsona batek ez badu bere mailegu-txartela 5 urtetan erabiltzen, baja eman ahal izanen zaio automatikoki.

Erabiltzaileek Nafarroako edozein liburutegi publikotan **eskatzen ahal dute txartela**, bertara joanez. Txartela eskuratzeko eskabidea bete behar da. Bertan datu pertsonalak idatzi (izen-deiturak, NANa, helbidea, jaioteguna, eta abar) eta NANa/AIZ edo pasaportea erakutsi.

Aurkeztutako identifikazio-agirian jasotzen den helbidea erabiltzaileak emandakoarekin bat ez badator, herriarekiko lotura frogatzen duen agiriren bat eskatzen ahalko da (lana, ikasketak, errolda, ordainagiriak, etab.).

14 urtez azpitikoen eskabidea aitak, amak edo tutoreak sinatu beharko du. Horretaz gain, adingabekoak NANa badu, hori ere aurkeztu beharko du.

Txartela Internet bidez eskatu ahal izanen da, halaber.

Irakurle-txartelean jasotzen diren datuak aldatuz gero (helbidea, telefono-zenbakia, etab.), erabiltzaileak horren berri eman beharko dio liburutegiari, liburutegien arteko maileguaren bidez erreserbatutako edo eskatutako dokumentuei buruzko jakinarazpenak, mailegatutako dokumentuen gaineko erreklamazioak, eta abar egin ahal izateko; bestela, erabiltzailea izanen da gerta daitezkeen kalteen erantzule bakarra.

Erabiltzaile-txartela eskatzeak berarekin dakar liburutegiaren funtzionamendua arautzen duten arauak eta jarraibide hauek onartu beharra.

Txartela galdu edo lapurtuz gero, horren berri eman beharko zaio berehala liburutegiari, haren erabilera okerrak saiheste aldera. Liburutegiari galeraren berri eman arte, erabiltzaileak erantzun beharkodu txartelaren bidez egindako eragiketengatik. Txartel berria edo kopia egiteko, indarreko tarifak aplikatuko dira; galera frogatzen duen lapurreta-salaketa aurkezten bada, ordea, ez da ordaindu beharrik izanen.

Txartela erabiliaren erabiliaz hondatzen bada, dohainik emanen da berria. Dagokion tarifa aplikatuko da arduragabekeria dela eta txartelaren kopia egin behar bada.

Mailegu kolektiboa erabili nahi duten erakunde publiko edo pribatuek (ikastetxeak, institutuak, ospitaleak, elkarteak, toki-entitateak, kolektiboak, etab.) maileguaren ardura hartuko duen pertsona ofizialki izendatu beharko dute, idazki bidez. Izendapena erakundeko arduradunak sinatu beharko du (zuzendaria, burua, kudeatzailea, etab.). Erabiltzaile kolektiboentzako txartelak urtebeterako edo ikasturtebaterako balioko du; epe hori iraganda, hura berritu edo iraungiko da.

Erabiltzaile-txartela eskuratzeko lagatako datuak Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 25eko 122/2002 Foru Aginduak (70. NAO, ekainaren 10ekoa) arautu eta babesten ditu; agindu horren bidez, "Nafarroako Liburutegi Publikoetako bazkideen erregistroa" izenarekin fitxategi informatizatu bat sortu zen, eta ondotik bi foru agindu hauek aldatu zuten hura: Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren urtarrilaren 13ko 3/2003 Foru Agindua (54. NAO, apirilaren 30ekoa) eta Vianako Printzea Erakundea- Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren urtarrilaren 27ko 4/2010 Foru Agindua.

Erabiltzaileek datuak sartu, zuzendu eta ezeztatzeko eskubideak erabiltzen ahalko dituzte, betiere indarreko legerian ezarritakoari jarraikiz, idazkia aurkeztuz Kulturako, eta Kirol Departamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Liburutegi Zerbitzuan.